

AUTOBUS GELTOKIAN

© David Ondars

Pertsonaiak :

LEHEN AGERRALDIA

MONIKA

KATTINA

CLAUDETTE

BITTOR

MIREIA

ARANTXA

BIGARREN AGERRALDIA

MARGA

PEIO

JOHANE

LILI

HIRUGARREN AGERRALDIA

PANTXIKA

MARGO

KLEO

BABETH

UHAINA

LEHEN AGERRALDIA

MONIKA. KATTINA. CLAUDETTE. BITTOR. MIREIA. ARANTXA

Autobus geltoki bat. Banku bat. Monika sartzen da, kantu liburu batekin eskupean.

MONIKA. To ! Kattina eta Claudette ! Egun on gazteak !

KATTINA, CLAUDETE. Egun on emazte xarmanta !

Irriak

MONIKA. Ongi zirezte ?

KATTINA. Marranta badut. Atzo hoztu nintzen...

CLAUDETTE. Hoztu ? 30 gradu egiten zuen atzo !

KATTINA. Bai, baina gauetan freskatzen da....

MONIKA. Bai, bai, bai, bai... Nik beti ene *Damart* bufanda badut nerekin

KATTINA. Nik ere, gure adinean...

CLAUDETTE. Bo, bo, bo, bo... *fragileak* zirezte zuek !

MONIKA. Ez naiz *fragilea*, ene botza atsiki nahi nuke ! Ez da gauza bera !

KATTINA. Nik ere, botza atsiki nahi nuke igandetan mezan kantatzeko (*hasten da mezako kantu bat kantatzen*)

CLAUDETTE. Zer ? Beti handik ibiltzen zira ? Oraindik sinesten duzu gure buruaren gainean zerbait badela ? Ez duzu oraindik ulertu pitokeriak zirela !

KATTINA. (*kexu*) Pardon ! Pitokeriak ? (*gurutzearen seinalea egiten du*) Jainko jauna, otoi, erran duena ez entzun. Jainko Jauna, emazte gaixo hunek ez du burua arras pikoan, ainitz bidaiatu du eta bere burua galdu zezakeen Argentinan edo Afrikan... Jainko Jauna, zu zira ene argi bakarra.

MONIKA. (*mozten dio*) Otoitzekin aski ! Ez zirezte beti ber istorioekin kexatuko ! Jesus existitzen da bai edo ez, hori fedea deitzen da eta errespetatzen da, ados Claudette ? Eta zu Kattina, zure meza, katixima eta Jesusekin aski dugu ! Ez dugu beste gai bat aipatzen ahal ez ?

Isiltasun bat.

CLAUDETTE. Atzo, telebista piztu nuen eta berehala itzali... ez da deus telebista hortan...

Besteek adosten dute. Beste isiltasun bat.

MONIKA. Gaur atzo baino beroago egiten du ez ?

Besteek adosten dute. Beste isiltasun bat.

MONIKA. Atzo *N'oubliez pas les paroles* so egin duzue telebistan?

CLAUDETTE. Otoi neska ! Ez aipa, *N'oubliez pas les paroles* !

MONIKA. Zer duzu *N'oubliez pas les paroles* ekin ?

CLAUDETTE. Irabazleak, Bernard, ez dut suportatzen ahal !

KATTINA. Ah bon ? Nik biziki maite dut, kantatzen duelarik, apezari ite du !

CLAUDETTE. Ez, ez, ez ! Ez du ongi ahozkatzen, gaizki kantatzen du...

KATTINA. (*mozten dio*) Ez diogu hori galdetzen ! Hitzak biziki untsa badazki !

MONIKA. Ez duzue uste, emankizuna faltsua dela ?

KATTINA. Nolaz faltsua ?

MONIKA. Badu zazpi aste irabazten duela ! Otoi, ez erran neri munduko hitz guziak dazkidala...

CLAUDETTE. Bainan arrunt mentsa zira ! Nagui biziki maite dut eta ez luke sekulan hori egingo !

KATTINA. Nagui maite duzu ? Ez dut suportatzen ahal !!

CLAUDETTE. Eta nik Bernard dut ez maite !

KATTINA. Nik Nagui !

CLAUDETTE. Nik Bernard !

MONIKA. Dena faltsua da !

CLAUDETTE. Gaizki kantatzen du !

KATTINA. Faltsua da Nagui !

MONIKA. Ez *N'oubliez pas les paroles* faltsua da !

CLAUDETTE. Zu isil !

KATTINA. Ez zu isil !

Bittor sartzen da.

BITTOR. Yoga kurtso bat, zuen osasunaren zerbitzuko !

Besteek begiratzen diote.

BITTOR. Oi, oi, oi, hemen tensio ainitz sentitzen dut.

CLAUDETTE, MONIKA, KATTINA. (*bestea erakusten diote*) Beregatik da !

BITTOR. Ados. Arazoa ulertzen dut. Lasaitu. Ostiralero, yoga kurtsoak proposatzen ditut gaineko apartamendu hortan.

MONIKA. Zer kondatzen duzu ? Zer da « yoga » hori ?

BITTOR. Yoga dena da eta aldi berean deus ez da. Barneko tensioak lasaitzen ditu. Fedea baino handiagoa da !

KATTINA. Ni ez naiz Jesusen bidetik urrunduko !

BITTOR. Lasai neska, bakarrik zure tensiotik urrunduko zira !

CLAUDETTE. Nik Indian, behin delako « yoga » hori egin nuen bainan ke usainarekin trenpusartu nintzen...

BITTOR. Lasai neska. Ez dugu sua edo kearik erabiltzen. Goizero Miarritzera noa, hondartz bazterrean, aire freskoaren hartzerat eta bildu dutan airearekin betetzen dut ene gela. (*besteek gaizki begiratzen diote*) Entseatu nahi duzue ? Orain ?

Besteek adosten dute.

BITTOR. (*kurtsoa hasten du, emazte zaharrek gaizki eginen dute, Bittor kexatuko da*) Beraz, begiak hetsiko dituzue. Begiak hetsi otoi... Begiak hetsi !! Arnasa hartuko duzue sudurrarekin eta

botako ahoarekin. Hori 3 aldiz. Gero, arnasa haundiago bat hartuko duzue eta zuen sabela hustuko duzue. Hori 5 aldiz. Are, bota ! Bota otoi ! Bota me kauen... Euh, Hegazkinaren postura eginen dugu orain. Hola egiten da (*kexatzen da*) Ez, eskuineko zangoa altxatu behar da, ez ezkerrekoa ! Lasai Bittor. Burua xut... Burua xut... BURUA XUT !! (*bere buruari*) Arnasa hartu eta bota, mendiaren gainean zira, on egiten du, itsasoa ikusten duzu, dena ongi doa. (*Emazte zaharrei*) Beraz hegazkina eta gero Krokodiloaren postura eginen dugu, ados ?

CLAUDETTE. Nik krokodiloak ez ditut maite !

KATTINA. Nik ere, beldurrazten naute !

MONIKA. Nik ere, haien begi haundiekin ! Pouah...

BITTOR. Bainan ez da posible ! Postura bat da ! Ez duzue deus sesitzen ! (*Bere buruari*) itsasontzi baten gainean zira, mugitzen da, normala da, bainan begira zer paisai ederra duzula begi pean !

CLAUDETTE. Zer kondatzen du honek ?

KATTINA. Iratzar zaite ! Ez zira itsas ontzi baten gainean !!

BITTOR. Badakit ! Bon, ulertu dut, zuekin ez dut dirurik eginen. Hala ere, Flyer-ak uzten dauzkizuet. Bittor deitzen naiz. Yoga erakaslea naiz. (*joaiten*) zu zira hoberena Bittor ! Bai badakit ! Zu zira hoberena Bittor...

Arantxa eta Mireia bere alabarekin sartzen dira. Arantxak telefonoa begiratzen du, biziki okupatua iduri du aldiz Mireia bere ñuñuarekin jolasten da, enoatzen da.

MIREIA. Aspertzen naiz ama !

ARANTXA. Oraindik 5 minuta eta autobusa etorriko da

MIREIA. Pisa egin nahi dut !

ARANTXA. Ez da komunetarik hemen. Atsik !

MIREIA. Bainan pisa egin nahi dut !

ARANTXA. Atsik !

MIREIA. Eta gose naiz ama !

ARANTXA. Egurditan janen dugu.

MIREIA. Eta egarri naiz ama !

Amak ez du erantzuten

MIREIA. Egarri naiz ama !! Egarri naiz, egarri naiz !

ARANTXA. Aspertzen nauzu Mireia ! Ez duzu ikusten lan egiten dutala hor !

MIREIA. Nik ere tableta ukan nahi nuke !

ARANTXA. Ez da zuretzat egina ! Ttipiegi zira !

MIREIA. Ez duzu lan egiten, jolasten ari zira ! Segur naiz jolasten ari zirela !

ARANTXA. Aski zure komediarekin ! Utz nezazu konzentratzen. (*pozik*) Ene errekorra gaintitzen ari naiz...

MIREIA. Ikusten duzu ez duzula lan egiten... Nik tableta ukan nahi nuke, zu bezala, Maia ene kusina bezala. Zendako haiek badute eta nik ez ?

Arantxak ez dio kasurik egiten

MIREIA. Ats guziz bakarrik naiz etxean, ez dut nehor nerekin jolasteko. Ehun liburu irakurri ditut, mila puzzle egin, bakarrik, bakarrik, bakarrik... Aspertzen naiz. (*oihukatuz*) Aspertzen naiz !

ARANTXA. Ixo ! Ez duzu ikusten denak trabatzen dituzula ! Ez zaitut hoka hazi !

CLAUDETTE. Zure haurraz okupa zite pixka bat

MONIKA. Oraingo belaunaldia, beti telefonoarekin !

KATTINA. Jainkoak jakin balu !

ARANTXA. Ez dizuet deus galdetu ! Badakit haur bat nola hazten den ! Ez didazue zuek erakatsiko dakidanez !

MIREIA. Aspertzen naiz !

CLAUDETTE. Ikusten duzu haur hori ez dela ongi !

MONIKA. Bai, atenzioa galdetzen dizu !

KATTINA. Utzi mugikor madarikatu hau !

ARANTXA. Ez didazue erranen zer egin behar dudan ! Errexa zen zuen adinean ! Aitatxi eta amatxi hurbil zintuten, lana etxean. Ni egunero 6etan iratzartzen naiz, alaba haurtzaindegian uzten dut, lanera noa, hogeita minuta ditut bazkaltzeko. Atsetan, 6etan bukatzen dut, autolerroak Baionan, alaba haurtzaindegian errekueratu, ez naiz etxean 8etatik aintzin ! Ez dakit ongi egiten dutanez bainan ahal dutan bezala egiten dut !

Besteak ixilik egoiten dira.

CLAUDETTE. Aizu, neskak, yoga puxka bat egiten baginu lasaitzeko ?

MIREIA. Zer da yoga ?

KATTINA. Nik ez dut arras ulertu bainan biziki irringarria da !

MIREIA. Bai egin nahi nuke !

MONIKA. Ea, hipopotamaren postura eginen dugu.

Arantxa giblean da, besteak hasten dira egiten. Momentu batez.

MIREIA. Begira ama, sobera ongi da ! Zato gurekin ! Otoi ! Zato gurekin !

Arantxa mugikorra uzten du eta haiekin joaiten da.

ARANTXA. Egia irringarria dela. (*besteeri*) Nik elefantearen postura erakatsiko dizuet !

Elefantea egiten hasten da, besteek imitatzen dute.

KATTINA. So ! Autobusa hor da !

CLAUDETTE. Adio neskak !

MONIKA. Egun ona pasa !

Autobusean sartzten dira.

MIREIA. Milesker ! (*amari*) Ama, ez dut psikologoaren ikustera joan nahi ! Untsa irri egiten ginuen.

ARANTXA. Badakizu zer ? Arrazoin duzu ! Psikologoa utziko dugu beste aldi batentzat. Ez da usu gertatzen biak elkarrekin izatea ! Zinemara joanen gira eta gero jatetxera joanen gira ! Zuk hauta !

MIREIA. Bai Mac Do-rat !

ARANTXA. Mac Do-rat ? Bon, ados, plazer egiten badidazu...

Joaiten dira. Bittor sartzen da.

BITTOR. Yoga kurtso bat, zuen osasunaren zerbitzukoa ? Ez da nehor ? Nehork ez du yogaren beharrik ? Zer ? Nik behar nuke ? Berdin, arrazoin duzu... hatsa hartu, botatu, hatsa hartu, botatu...

BIGARREN AGERRALDIA

MADDI. PEIO. JOHANE. LILI

Bi pertsona sartzan dira. Bakotxak surf plantxa batekin.

MADDI. Zer puta da hori !

PEIO. Zer gertatzen zauzu ?

MADDI. Ez da ere ez markatu zer ordutan pasatzen den autobusa !

PEIO. Bai. Hantxe (*erakusten dio*). Gauza urdin hortan

MADDI. Nun ? Ez dut ikusten !

PEIO. Lasai. Mapa horren azpian. Hamabi garren linea

MADDI. Hyper gaizki egina da ! (*irakurtzen du, frantsesez*) 15h46. Zer ordu da ?

PEIO. Laurden gutti... Minutu bat gelditzen zauzkigu, lasai !

MADDI. Lasai, lasai ! Enerbatzen nauzu zure lasaiekin ! Olatu hoberenak huts eginen ditugu !

PEIO. Ez da grabe, bihar berriz etorriko gira !

MADDI. Bainan gaur erran zuten, haizea « off shore » zela eta aste huntako olatu hoberenak gaur zirela !

PEIO. Lasai...

MADDI. Zer ordu da ?

PEIO. Berrogoi eta sei !

MADDI. Eta autobusa ez da hor ! Beti bezala ! Ongi etorri Euskal Herrira !

PEIO. Zer erraiten duzu ? Geldi...

MADDI. Bordalen, mila aldiz tramwaya hartu dut eta ez da behin ere gertatu berantean izatea ! Hemen beti hola da !

PEIO. Lasai...

MADDI. Segur nintzen Landesetara joan behar nintzela ! Han hondartzak politagoak dira, handiagoak, sablea ez da berdina. Sablea urrea da. Ez du hemen bezala kolatzen !

PEIO. Nahi baduzu ondoko aldean Landesetara joanen gira

MADDI. Ouais, c'est ça t'sais... Ez eni erran, zuk utziko duzula zure Miarrizeko hondartza ?

PEIO. Zergaitik ez ? Miarrizeko hondartza maite dut bainan ez naiz hetsia...

MADDI. Ouais c'est ça ! Euskaldunak hola zirezte, hyper etsiak ! Ez zirezte batere idekiak !

PEIO. Lasai...

MADDI. Eta autobus pito hori !! Zer ordu da ?

PEIO. Berrogoi ta sei... euh... zazpi !

MADDI. Are !! minuta bat beranta ! Ez da posible ! Txik Txak, Txarrenetaren Txarrenak !

Johane sartzan da. Beroketak egiten ditu.

JOHANE. Autobu geltoki batean naiz ?

MADDI. Nor da berriz ere zozo hori ?

PEIO. Bai, bai. Autobus geltokian zira.

JOHANE. Super ongi ! Eta nola egiten da autobusa hartzeko ?

PEIO. Tikete bat hartu behar duzu eta itxoin behar duzu.

JOHANE. Super ongi ! Zenbat denbora itxoin behar dut ?

MADDI. Normalki, gutti bainan hemen, ainitz denbora galtzen da ! Euskal Herria da, dena bitxia da hemen !

JOHANE. Ez super ongi batere ! Prisatua naiz !

MADDI. Gu ere prisatua gira, olatu hoberenak pasatzen dira eta guk bi *plouk* bezala itxoiten dugu !

JOHANE. Nik jendeak salbatu behar ditut !

PEIO. Jendeak salbatu ? Stylé !

JOHANE. Ez da super stylé ! Jendeak salbatzeko, usaian, ene Batmobila hartzen dut bainan momentu hortan, panan dut. Alternateura aldatu behar da, badakizue... Joan behar naiz norbaiten salbatzera bainan aski urrun da eta ez dut sekulan autobusa hartu !

PEIO. Batmobila ? Horrek erran nahi du...

JOHANE. Bai, ni naiz.

MADDI. N'importe quoi ! Zer nahi kondatzen duzu ! Zu barnekaldekoa zira ?

JOHANE. Zendako hori erraiten duzu ?

MADDI. Barnekaldekoak dira eroenak ! Donapaleukoa zira ? Ez ! Badakit ! Okerrena, xiberotarra ! Xiberotarra zira ? Segur nintzen !

JOHANE. Ez zaitut ulertzen !

PEIO. Lasai, nehork ez dio ulertzen...

JOHANE. Laguntzen ahal nauzue beraz ? Prisatua naiz !

MADDI. Biziki sinplea da, sartzen zira, gidalariari tiketa bat erosten diozu eta... Bainan zer ari zira Maddi ? Olatu baten gainean izan behar zenuke eta hor denbora gelditzen ari zira. Badakizue zer ? Banoa !

PEIO. Bainan Maddi, hondartzatik 10 kilometrotan gira!

MADDI. Futitzen naiz, Euskal Herria bitxia da, euskaldunak bitxiagoak ! Banoa, ciao ! (*joaiten da*)

PEIO. Maddi, itxoin ! (*momentu bat*) Ez duzu sekulan pentsatu zu bitxia zinela ? Zu zinela arazoa eta arazoa ez zela beti bestea ? Baizik eta zu ? Ez ? (*momentu bat*)

JOHANE. (*kalmatzen du*) Lasai !

PEIO. Sobera lasaitu naiz bizi hortan, ni ere banoa ! (*joaiten da*)

JOHANE. Eta ene autobusa ?

Johane bakarrik da. Galdua da. Lili sartzen da.

LILI. Egun on

JOHANE. Egun on

LILI. Zu ez zira untsa ?

JOHANE. (*ironikoa*) Super untsa naiz milesker ! Bi zozarengatik autobusa huts egingen dut eta jendeak ez ditut salbatuko !

LILI. Jendeak salbatzen dituzu ? Medikua zira ?

JOHANE. Ez... edo bai, jendeak salbatzen ditut baina...

LILI. Baionako hospitalean lan egiten dut ! Irringarria da ! Nola duzu deitura ?

JOHANE. Etcheverry...

LILI. Etcheverry aintz ezagutzen ditut baina medikurik ez...

JOHANE. Ez naiz medikua, jendeak salbatzen ditut bakarrik

LILI. Ah, magnetiseur delako bat zira ! Ez dut sobera sinesten hortan, behin entseatu nuen baina ez zidan deus egin. Nahi baduzu, joan nintzen suaren fobia dutalako. Badakit zozoa dela baina...

JOHANE. Ez da batere zozoa ! Nik ez dakit nola hartzen den autobus bat !

LILI. Ez duzu sekulan autobusarik hartu ?

JOHANE. Ni auto berezi batekin ibiltzen naiz, izen bat eman diot...

LILI (*mozten dio*) Nik ez dut autorik. Sekulako denbora galtzen nuen auto lerroetan, eta ez da batere ekologikoa. Autobusa hartzen dut, nahiago dut.

JOHANE. Erakusten ahal didazu nola hartzen den autobus bat ?

LILI. Bistan dena ! Laguntzen ahal badut. Norat joan nahi zenuke ?

JOHANE. Baionako Polo Beyris auzorat.

LILI. Itxoin... Polo Beyriserak joaiteko... 6a hartu behar zenuke. Baina geltokia ez da hor. Karrikaren puntan duzu. 200 metro egin behar duzu xuxuen eta okindegia pasatzen duzularik, hor eskuin hartu beharko duzu, 50 metro eta geltokia han atzemanen duzu.

JOHANE. Milesker

LILI. Lasai, ez da deus

JOHANE. Ez, zinez milesker ! Usaia dut jendeen salbatzea eta kontrarioa ez zait usu gertatzen, beraz, milesker ! Super gisakoa zira !

LILI. Super deusetaz !

JOHANE. Badakizu zure fobiarentzat : yoga egiteak on egiten du...

LILI. Ah bai ?

JOHANE. Bai. Nik saguzaren fobia nuen, yogarekin lasaitu nintzen eta begira ! Orain saguzar bat naiz !

LILI. Ados.... Ez dut dena ulertu baina entseatuko naiz. Joan aintzin galdetzen ahal dut zure izena ?

JOHANE. Johane.

LILI. Ah Xiberotarra zira ?

JOHANE. Zendako dena hori erraiten didate ?

LILI. Ongi izan Johane !

LILI. Bai, zu ere bai !

Lili autobusa itxoiten du. Flyer bat atzemaiten du

LILI. (*irakurtzen du*) Bittor Yoga zuen osasunaren zerbitzukoak ! (*bere buruari*) Lili, ez dea seinale bat ! (*deitzen du agertzen den zenbakira*) 66.58.99... Allo ? Bai zure flyera atzeman dut eta nahi nuke yoga hasi... Tensioak baino gehiago fobia bat dut eta nahi nuke arazo hori konpondu... Ah fobiak kentzen dituzu ? Bikain ! ... Girafaren posturarekin ! Ok... Bai ostiralean, hor naiz. Milesker. Ez adiorik ! (*Mozten du*) Ah jadanik hobekiago sentitzen naiz.

Ateratzen da.

HIRUGARREN AGERRALDIA

PANTXIKA. MARGO. KLEO. BABETH. UHAINA.

Pantxika sartzen da, stresatua da.

PANTXIKA. Are neskak ! Erna ! Autobusa huts egingen duzue !

KLEO / MARGO. Lasai ama !

MARGO. Bost minuten buruan etortzen da

PANTXIKA. Badakit ! Bainan bost minuta ez da deus ! Ez duzue hust egin behar !

KLEO. Ama, zer ordutan dugu hegazkina ?

PANTXIKA. (*kexu*) Ez duzu begiratu ??

MARGO. Kleo ! Zendako hori galdetzen duzu ? Eguerditako Miarritzen izan behar gira !

KLEO. Ados ! Uste nuen hiru orenetan izan behar ginela

MARGO. 3 orenetan, airatzen da hegazkina !

PANTXIKA. Kleo, estresatzen nauzu ! Margo, kasu egingen diozu zure ahizpa haundiari

MARGO. Bai ama, bainan normalki, famili normal batean, kontrarioa da, ahipa handiek ahizpa txikiak zaintzen dituzte !

KLEO. Utz nezazu bakean !

PANTXIKA. Ez zirezte berriz hasiko ! Sei hilabetez elkarrekin biziko zireztela orroitarazten dizuet !

Kalmatzen dira

PANTXIKA. Dena hartu duzue ?

KLEO / MARGO. Bai ama

PANTXIKA. Pasaporteak ?

KLEO / MARGO. Bai ama

PANTXIKA. Bankuko karta ?

KLEO / MARGO. Bai ama

PANTXIKA. Visa ?

KLEO / MARGO. Bai ama

PANTXIKA. Mugikorra ?

KLEO / MARGO. Bai ama

PANTXIKA. Carta vitala ?

MARGO. Ama, Japonian ez da behar !

PANTXIKA. Hartu, inkase ! Beldurrarazten nauzue, sobera trankil zirezte ! Zer ordutan arribatuko zirezte Tokion ? Mezu bat bidaliko dautazue ?

MARGO. Atsaldeko 3etan izanen da hemen eta han atseko 11tan, eta bai mezu bat bidaliko dizugu.

PANTXIKA. Atseko 11etan ? Bainan nun janen duzue ? Japoniako ambasadarat deituko dut jatetxe bat atzeman behar dizuet !

Margo eta Kleo irriz. Pantxikak deitzen du.

KLEO. 6 hilabete amarik gabe, horiek bai egiazko oporrak !

MARGO. Bai eta 6 hilabete elkarrekin...

KLEO. Ez erran hori ! Segur naiz ongi pasako dela, ez gira sekulan izan hain beste denbora elkarrekin amarik gabe

MARGO. Hortako beldurtua naiz... Ez dakit soportatuko garen...

KLEO. Zozoa ! Bistan dena !

MARGO. Ikusiko duzu... Ez gira 2 minuta egoiten ahal samurtu gabe...

KLEO. Rrooo ! Pesimista zira ! Harrigarria da ! Zure musikak ez dizu lasaitzen... KK-popa !

MARGO. K-popa !

KLEO. KK popa !

MARGO. *(nini bat imitatzen du)* Mangak maite ditut, Dragon ball Z marrazten dut, munstroak margotzen ditut, nini bat naiz ! Handitu pixka bat !

KLEO. Zu zira ninia, KK popa !

MARGO. Ikusten duzu, ez gira 2 minuta egoiten ahal samurtu gabe...

PANTXIKA. Kalmatu neskak, ez dut deus entzuten... Bai allo ? Konixiua, arigato, mazané !

Uhaina eta Babeth sartzen dira. Uhainak argazki tresna bat badu.

BABETH. Sobera bero dut, zer da egurraldi hori !

UHAINA. Udan gira, normala da...

BABETH. Bainan halere... Bota ura !

Uhainak ur botoila emaiten dio. Ez dio eskertzen.

BABETH. Beraz Uhain, esplika nezazu zer egiten dugun hemen

UHAINA. Hunarat etorri gira zure bideoa grabatzera...

BABETH. Hori ulertu nuen ! Beraz ?

UHAINA. Eta pentsatu nuen ongi zela... hemen egitea...

BABETH. Ez dut ulertzen... Zergaitik hemen ?

UHAINA. Ez zira orhoitzen ?

BABETH. Uhain ! Ez ! Ez naiz orhoitzen !

UHAINA. Autobusa hemen hartzen ginuen kolegioan. 4 urtez. Eta hemen elkar ikusi ginuen lehen aldikotz. Biziki ongi orhoitzen naiz : Zuk Vans beltzak zenituen eta nik arrosak. Elkar trukatu genituen, zuri arrosa biziki gustukoa zinuelako... eta nik zure vans beltzak hartu nituen... Ez zira orhoitzen ?

BABETH *(faltzuki)* ... Ah mais bai ! Bai, bai... *(egiazki)* Ez ! Ez du orhoitzapenik ! Bainan ideia biziki maite dut. Biba zu Uhain ! Sobera azkarra zira ! Zu gabe, zer egin nezake !

Musu bat ematen dio.

UHAINA. Beraz pentsatzen nuen, zuk ibiltzea, hola... Zure hartzaroko garaiak kondatzen dituzu eta bixkotxa ateratzen duzu...

BABETH. Ados Uhain, ulertzen dut ! Aldiz, jendeak kendu behar dira !

UHAINA. Ah... ez dakit, jendeekin ongi da...

BABETH. Ez, ez, ez ! Bakarrik izan nahi dut, ez dut trabarik ukan nahi... Atenzio guzia ukan nahi nuke beraz, Uhain, ken ezezkizu jende horiek... orain !

UHAINA. Bainan Babeth..

BABETH. Uhain maitea, ideia biziki ona da, biba zu ! Proposatzen duzuna eginen dut bainan egin galdetzen dutana eta ongi pasako da...

Uhainak jendeak kentzen entseatzen du bainan ez dute nahi.

UHAINA. Barkatu bainan bideo bat grabatu behar dugu eta behar zenukete hemendik joaitea !

MARGO. Ez dut uste, ez !

KLEO. Margo, espazioa behar dute, joan giten !

MARGO. Ez gira hemendik partituko !

UHAINA. Bainan ez duzue ezagutzen You_make_Babeth_Dreaming?

KLEO. Bai ezagutzen dugu, joanen gira...

MARGO. Bainan Kleo ! Otoi ! Ez dugu autobusa huts egin behar, ez gira partituko !

KLEO. Arrazoin duzu Margo ! Ez gira partituko !

PANTXIKA. Zer pasatzen da neskak (*Uhainari*) Egun on, Barkatu, Pantxika Sallaberry naiz, haien ama. Barkatu bainan zer gertatzen da ?

UHAINA. Hemen Reel bat grabatzen dugu, biziki inportantea da eta joan behar zenukete... orain !

PANTXIKA. Barkatu neska bainan autobusa itxoitzen dugu eta bizki inportantea da ere, ez dute huts egin behar !

KLEO. Japoniara goaz !

BABETH. Japoniara ? (*irri egiten du*) 3 aldiz joan naiz Tokiorat, tradizio gehiegi bada... Dubai nahiago dut !

KLEO. Utz gaituzu amesten !

MARGO. Ongi errana hori !

BABETH. Uhain, kenzkizu jende horiek hemendik eta fite ! Ez dut bero epel horrekin 10 minuta baino gehiago itxoinen !

KLEO / MARGO / PANTXIKA. Ez gira mugituko !

UHAINA. Eta ez ditut mugiaraziko ! Askari dut ! Xakur ttipi bat bezala tratatzen nauzu ! Ah bai, beharrik ideia onak ditudala, ez genuke urrundik joan zure ideia zozoekin ! 4 urte egon girela hemen, goizetan eta atsetan ! Ene biziko istorio intimoenak hemen kondatu nizekizun, bainan zu ez zira deusetaz orhoitzen ! Uzten zaitut ! Adio ... (*joaiten da, gelditzen da*) Eta ez naiz Uhain deitzen baizik eta UHAINA !

Babeth harritua egoiten da, besteak ere.

KLEO. Begira autobusa etortzen da

PANTXIKA. Adio neskak ! Zaindu zuen burua !

KLEO / MARGO. Ez adiorik ama !

PANTXIKA. Eta ez ahantzi...

KLEO. Bai mezu bat bidaltzea.

PANTXIKA. Maite zaituztet neskak !

KLEO / MARGO. Guk ere bai ama.

Autobusean sartzen dira. Babeth bakarrik egoiten da, jartzera joanen da.

BABETH (*bere bixkotxak jaten ditu*) Puah... (*bixkotxak lurrera botatzen ditu*) Ez dira ere ez onak !

(*flyer bat ikusten du lurrean eta deituko du*) Bai... allo ? Yoga kurtsoak proposatzen dituzu hori da ?

Interesatzen nau bai... Lehoinaren postura dakidanez ? Ez... Ats huntan dela lehen kurtsoa ?

Bikain ! Badakizu kamera bat manipulatzeko ? Sare sozialak menperatzeko ? ... Lasai ats huntan aipatuko dizut... Zure izena Bittor da ? Ados. Gero arte Ttotor !

FINI


Antzerki testu hau Euskal kultur erakundearen web-atarian zintzilikatua izan da, egilearen baimenarekin, <http://antzerkit.eke.eus> helbidean, Iparraldeko euskarazko antzerki testuak biltzen dituen atal batean.

© Copyright lizentziapean zabaldua da.

Ondorioz, ezin zaio inolako aldaketarik ekarri egilearen baimenik gabe.

Ildo beretik, antzerkia publikoaren aitzinean eman nahi izanez gero, egilearen baimena eskuratu behar da derrigorrez (edota egilearen eskubideak kudeatzen dituen pertsona edo erakundearena).

Harremanetan sar daiteke zuzenenean berarekin edo Euskal kultur erakundearen bidez antzerkia@eke.eus helbidera idatziz.



antzerkit.eke.eus

Ce texte provient du recueil d'œuvres théâtrales en langue basque mises en ligne avec l'accord de leurs auteurs dans une rubrique du site de l'Institut culturel basque à l'adresse <http://antzerkit.eke.eus>.

Il est diffusé sous une licence © Copyright. De fait, aucune modification ne peut lui être apportée sans autorisation de l'auteur.ice.

De même, cette œuvre ne pourra être donnée en public qu'après avoir obtenu l'accord de l'auteur.ice (ou de la personne ou de l'organisme la représentant). Vous pouvez, à cette fin, le/la contacter directement ou obtenir ses coordonnées par le biais de l'Institut culturel basque en adressant un message à l'adresse antzerkia@eke.eus.